



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

5. ERABAKIA: LANDA EREMUEK ELEKTRIFIKATZEA – « FACE AB (EXTENSION SOUTERRAINE° 2023 PROGRAMA)» **PROIEKTUAREN ETA HERRIAREN ZATIAREN FINANTZAZIOAREN ONARPENA –** **23EX075 AFERA** *(9.1 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Territoire d'Energie des Pyrénées Atlantiques-ri eskatu diola honako lanen ikerketa abiatzea: SOLIVEAU Mickael jaunaren jabegean elektrizitate horniduraren hedapena.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta SPIE/REY BETBEDER Taldeak eginen dituela.

Auzapezak zehaztu du lan horiek «FACE AB (lurpeko hedapena) 2023 » Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, lehenago aipatu lanen eginaraztea, eta Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,
- **ONARTU DITU**, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:
 - Lanen zenbatekoa zergak barne
12 298.76 €
 - Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak
1 229.88 €
 - Notario aktak (2)
690.00 €

- TE64 ren kudeaketa gastuak	512.45 €
OROTARA	14 731.09 €
• ONARTU DU , ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:	
- FACE parte hartzea	9 571.10 €
- TE64k aurretiaz ordaindutako BEZ	2 254.77 €
- Herriak funts libreekin ordainduko dituen lanak	2 392.77 €
- Herriak funts libreekin ordainduko dituen kudeaketa gastuak (funts libreekin diruztatzekoa)	512.45 €
OROTARA	14 731.09€

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da. Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

- **ONARTU DU**, herriaren jabetza pribatua balizko pasaia eskubide baten ematea, eta aukera badenean TE64ri baimena ematea energiaren aurrezte egiaztagiriaren eskuratzeko
- Honako erabakia legezatasun kontrolera **IGORRI DU**.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.